



Mandoilek
Mandoilek
Elkar, 2013

Festarako grina suspertzeko asmoz

HEZETASUNA gainera kendu ezinik gabiltzan sasoi honetan, berotasun izpi bat emango didan esperantzarekin ekin diot Mandoilek taldearen lehenengo diska entzuteari. Aurreneko abestiarekin batera sumatzen hasia naiz dantzan arituko naizela hurrengo ordu erdian, eta berehala antzeman dut gorputzean itsatsitako lizuna askatzeko momentuko irtenbidea topatu dudala. Ez goaz gaizki.

Mandoilek taldeak proposatzen dizkigun doinuek eta hitzek indarra, festa, kolorea eta sentimendua aireratzen dute lau haizetara, eta mezu hori Euskal Herriko gazteen artean zabaltzen aritu dira zuzeneko emanaldietan. Musikaren alde argitsua erakusten saiatu dira, azken batean erritmo dantzarrietan oinarritzen baitira, reggae, cumbia, rumba eta horrelako doinuak joz.

Amurrioko taldeak euren kantuetan euskara eta gaztelania tartekatzen dute eta abesti berean bi hizkuntzak jorratzearen aukera hori Mandoilek taldearen ezaugarrietako bat dela esan genezake. Abesti berean erritmo aldaketak ere ematen dira hainbat kantuetan.

Oholtza gainean pare bat urte daraman taldeak. Beste proiektu musikaletan ibiliak diren Igon OLAGUENAGA trikitilaria eta ASIER LINARES perkusio-jotzailea errepertorioa biribiltzen hasi ziren, eta geroago DAVID FERREÑO baxularia eta ANDONI VERA gitarra-jotzailea sartu ziren, sortzen ari ziren kantuetan sendotzeko asmoz. Arlo musikala finkaturik zutela, Unai Mendibil bertsolaria gonbidatu zuten kantuen hitzak sortzera eta melodiak kantatzera.

Oihuka diskoetxearen zigilupean kaleratu du Mandoilek taldeak izenburu bera daraman diskoa eta DAVID NANCLARES musikariaren ekoizpen artistikoaren laguntzaz grabatu dute.

Diskoak dituen 9 kantuetan zenbait gai jorratzen dira, hala nola, egungo egoera edota noizbait gertatutako egoera bat. Azken honen adibide dugu *Corazón* abestia. Euskal Herrian oihartzun handia izan zuen pasadizo bat ekartzeko du gogora: emazteari ehizatzen Soria aldera zihoala esan, eta etxean eskopeta ahaztuta Kubara joan zen senarraren gertaeran edo hiri-legandan oinarritzen da, hain zuzen.



Abestirik ederrenetakoa *Urrutitik kantu* dugu. Naroa Gaintzaren ahotsaren tinbre goxoak kolorea eman dio eta bere ahotsa gizezkoenekin ondo uztartua dago. Kantuaren erritmo eranskorak eta zabaltzen den mezu baikorrak borobildu dute abestia.

Espuela amaierako kantuarekin –bukaera emateko apropos utzia ote?– azkeneko tragoarekin beti liatzen den parrandazaleari omenalditxo egin diote.

Denbora-pasa moduan sortu zen taldeak lehenengo zuzeneko 2012ko maiatzean eman zuen eta Euskal Herrian eta Katalunia aldean emandako 40 bat kontzerturekin amaitu zuten urtea.

Uda honetan, plazak gainezka egoten zireneko garaiak joanak direla jakinda ere, festarako grina suspertzeko asmoz arituko dira zuzeneko emanaldietan, betiko erritmo dantzarrietan oinarritutako nahaste erakargarriari eutsiz.

Aurten, ekainaren 16an Amurrión ospatuko den Araba Euskaraz-eko kanta egiteko enkargua jaso du taldeak. Hala, beraien estiloari leialki jarraituz, *Mibian kili-kili, euskaraz ibili* sortu dute Igon OLAGUENAGA eta Unai Mendibilek. Abestia eta bideoa klipa ikusgai ditugu www.arabaeuskaraz.net helbidean. ■

Olatz Korta

